

JOSÉ MARÍA DE AREILZA

La poesía, que en fin de cuentas, es esencia de espíritus selectos, ofrece como tal, entre otros encantos, que pueda ser cultivada, lo mismo que las flores, por quien no es jardinero de oficio. Muchas actividades absorben toda la dinámica capacidad de José María de Areilza, pero no es obstáculo para que cultive también el jardín de la poesía. He aquí, una bella flor.

Al Monte Arno

¡Arno gigante a cuyos pies discurre
La mansa rumia de la vida aldeana,
Roca cubierta de bortal y helecho
De la que arroyos transparentes bajan!
Yergues al horizonte tu silueta
Difusa entre cendales, de mañana,
O nítida en azul de rosicleres
Cuando sopla del Sur, el viento, a ráfagas.

Tú eres mudo testigo de la rueda
Que empuja sin cesar la estirpe humana,
Que llamamos enfáticos la historia
Y es sólo albergue de ilusiones vanas.
En tus pliegues recónditos se alzaron,
De lajas sin tallar, las barbacanas
De pretéritas tribus que a su abrigo
Iniciaban la vida de la raza
Balbuceando el idioma primitivo,
Semilla y germen de la lengua vasca,
Adorando al sol y a las estrellas
En lucha con las fieras y alimañas.

Tiempos pasaron de tinieblas frías
En que los clanes de la estirpe bárbara
Señoreaban tus selvas y caminos
Entregados a la lucha y a la caza,
Hasta que un día el clarín mediterráneo
Resonó metálico en tus faldas
Anunciando la ley, la lengua nueva
Y el Imperio que Roma promulgaba:
La rueda, el arado y la familia,
El mosaico tenaz de la calzada,
Los dioses, las espigas, las estrofas,
Y el invicto fulgor de las espadas.

Luego, guerreros de linaje gótico
A los cascos romanos suplantaban
Y con ellos apóstoles ardientes
Que bautizaban a la fe cristiana.
En el rincón del Deva semioculto
Donde antaño a Venus adoraban,
Levantaron la Iglesia primitiva,
Templo humilde de piedras y de tabla.

Siglos después, rumor de peregrinos
Caminando de diócesis lejanas
A Santiago en piadosa romería
Llenaron tus senderos de pisadas,
Cruces votivas, ermitas jacobearas,
Conchas estriadas de jugosa valva,
Marcaron sus improntas en tu cuerpo
Como recuerdo de la gran riada.

Un día allá abajo junto al puerto
Que agudos senos de la costa trazan
Los Reyes de Castilla dan franquicias
Para poblar la villa amurallada.
Surge la puebla de marinos, pescadores,
Artesanos y gente aburguesada;
Quechamarines, goletas, balleneras
Surcan la mar por ellos tripuladas
Y el mundo nuevo nacido de las olas
Ancho campo ofrece a sus hazañas.

Poblaronse barrancos y laderas
De blancos caseríos; las manzanas
Fermentaron en sidra y los racimos
El agridulce chacolí guardaban.

Era ya el setecientos y tu periplo,
Arno gigante, en una mano estaba,
Mano enguantada y fina de aristócrata
Que las Artes y Ciencias cultivaba.
De Munibe en Jemein hasta Arancibia
Con Aspe y Sasiola se entrelazan
Y en el viejo lugar de Astigarribia
El monte Arno por su base abarcán.
Son horas de quietud y de reposo
Con minué y tertulias ilustradas,
De chocolate de Indias con bizcochos,
Con rapé y pelucas empolvadas.

Pero ya el cañón allá a lo lejos
Acaba con la ilusa edad dorada.
Vienen del Pirineo por Guipúzcoa,
Enarbolando tricolor cocarda,
Los soldados de Francia con sus lemas
Que levantan fervor en las mesnadas.
A tus pies, Arno inmenso, voluntarios
De la hidalga tierra vascongada
Tiñeron con su sangre tus laderas
Y al feroz invasor tienen a raya.

Desde entonces acá y en siglo y medio
Tus bosques, senderos y encañadas
El fragor de la guerra han conocido
Y el crepitir intenso de las armas:
Hombres de Bonaparte, guerrilleros,
Bravos realistas de la boina blanca,
Cristinos y carlistas, liberales,
Banderizos fervientes de la raza,
En holocausto allí sus vidas dieron
Carne joven, semilla de tu entraña.

¡Arno inmóvil, de piedra diplodocus,
Tu lomo arqueado se estira y agazapa
Entre Elgoibar y el mar!

Pasaron sobre ti cientos de siglos.
Desde tu cima de caliza blanca
Miras indiferente la secuela
De avatares sin fin de nuestra casta.
Eres naturaleza: piedra y fuego,
Bosque y hierba, pirámides de lava,
La historia y su pasión; amor y ciencia
Todo eso es para ti, nada.

Y acaso un día nuestra propia vida,
La pobre vida humana,
Se extinguirá en el mundo y para siempre
La resonancia de su pompa vana.
Y entonces tú, ¿te seguirás irguiendo alto
Sobre la costa cántabra?
¿Encima de tu cumbre, los luceros
Brillarán en las noches estrelladas
Sobre un mundo vacío? Y en tus sendas,
¿ninguna huella acaso conservada
De tantos siglos de contienda y lucha,
De amores y pasiones encontradas?

Bien puede ser así, mas en tu cima
Sirviendo al monte entero de atalaya
Abre sus aspas una cruz de piedra,
Símbolo de la fe y la esperanza.
Ella da savia al caminar humano,
Sentido a las batallas,
Redime la conciencia del olvido,
De la extinción, las almas;
Y sobre las arrugas del planeta,
Que llamamos montañas,
Señorea el cielo azul,
Sus brazos aguardan la llegada
Del que cabalgando sobre nubes
Ha de venir para la gran jornada.

¡Cumbre del Arno, nombre florentino,
Tu cabeza ha sido bautizada
Y eres por ello, oh ciclope gigante,
Catedral en granito levantada!

Amontillado-upela

*Edgar Allan POE'k idatzia
Mirande'tar Jon'ek itzulia*

Fortunato'ren amaikatxo kalteginak âl nuen obekien jasan nituen, bainan iraintzera ozartu zitzaitanean apenduko nintzala zin egin nuen. Zuek ene arimaren izaera ain ondo dazaguzutenok, ayer zerate ez nuela orratio meatxu bat ere atera. Azkenenkotz apenduko nintzan; ori zan bein-da-betiko erabakitako arazo bat-bein-da-betiko erabakitzeak berak, ordea, irrisku oro bazterten zuen. Ez nuen zigortu bear, bakarrik, baizik ere neu damutzeke zigortu. Oker bat ez dago zuzendurik zuzentzalleak ordaindu bear ba'du. Zuzendu gaberik dago alaber apentzalleak ez ba'du irixten, bere burua zâr apentzalle antzo nabarmenerazteria oker-egileari.

Ulertu bear da ez niola Fortunato'ri, itzez ala egitez, ene nai ona zalantzan jartzeko biderik eman. Beti ere irripar egiten nion, lenago oi nuanez, eta ez zan oartu aren eriotz-opa gogoan nuela orain egiten.

Makalalde bat zeukan Fortunato orrek—bestaldez gizon begiragarri baita heldurgarria ere izanagatik. Arroputz zebillen ardo-ezagutzailla zalakoan. Italiarretan guti dira egizko ezagutzaleak. Geienetan, zalletuarena egiten dute abaguneari dagokiolako, Britaindar eta Austriar milloidunak atzipetzeko. Margo-ertian eta arri-bitxietan Fortunato, bere erritarrak iduri, sasi-jakintsua zenuten; ardo zârretan zinezkoa, berriz. Ortan ez nintzan aren gandik urrun ibiltzen: nerau oentsua nintzan Italia'ko ardoetan eta nasaiki erosten nuen al nuen guzian.

Illunabar-aldera zan, Iñauteri-zoroaldi zoroeneko arrats batean, ene adiskidea arkitu nuelarik. Su eta gar urbildu zitzaidan, oparo edan bai-zuen. Nabar jantzirik zebillén. Soñeko ertsia, laukitu bat

zekarren eta buruan, adar-itxurako txapel girgildun bat. Ainbat atsegin izan nuen ikustez non uste bai-nuen bein ere ez nintzala geldituko, aren eskua estutzetik.

Esan nion: "Fortunato maite ori, zorionez ikusten zaitut, Zer arpegi ederra duzun gaur! Bainan ardo-upel bat artu dut, Amontillado dala omen, eta ezbaian nago."

—Nola? —egin zuen—, Amontillado? Upel bat? Ezin leike! Eta Iñauteri erdian!

—Ezbaian nago —erantzun nuen—; eta alako ergela izan naiz Amontilladoaren salneurri osoan ordaintzeko zure iritzia artu gabe. Ezin aurki zindezakadan eta beldur nintzan merkatu on bat gal.

—Amontillado!

—Ezbaian nago!

—Amontillado!

—Eta jakin bear dut segurki.

—Amontillado!

—Egiteko ba duzunaz geroz, Luchresi gana ba'noa, Norbaitek zerbaite ba'daki, ura da. Esango dit...

—Luchresi'k ez daki Amontilladoa Sherry-ardotik bereizten.

—Eta alaz ere, zoro batzuek daukate aren gozamena zurearen bete dala...

—Zatoz, goazen...

—Nora?

—Zure sotorra.

—Ez, adiskide; ez naiz zure ondasunaz baliatu nai. Egiteko ba'duzula ikusten dut. Luchresi...

—Ez dut egitekorik; zatoz.

—Ez, adiskide. Ez egitekoaren gatik, bai ordea ezagun zaizun marranta gaitzaren gatik. Sotoa ezinago eze da. Gezalez ianik ditu ormak.

—Goazen, alaz'ta guziz ere. Marranta ez da ezer ere. Amontillado! Atzipetu zaituzte. Luchresi'k, berriz, ez daki Sherry-ardoa Amontillado'tik ezagutzen

Orrela mintzo zalarik ene besoaz jabetu zan Fortunato, Nik, zeda beltzezko zomorro bat arpegian jarri eta roquelaure (1) batez soña estuki jantzirik, utzi nuen neure jauregira arin eroan nindezan.

Miraberik ez zegon etxeан; aldegiten zuten jaialdiaren goratzarez poz artzeko. Esan nien ez nintzala biamon goiza baño len sartuko eta agindu zeatzak egin nizkien etxetik ez mugitzeko. Ba'nekin aginduok aski zitutela dan-danak bereala ayen-erazteko, nik aztala inguratuta orduko.

(1) Roquelaure: lenagoko soineko mota bat.

Bi zuzi artu nituen argi-mutilletatik, eta bata Fortunato'ri emanik, otseman nuen, gela asko zear, sotorako arku-bide bateraino. Zurgubiribil batetik jatsi nintzan, arduraz ibiliz jarraitzeko lagunari eskuon doren. Azkenekotz buka-mailera eldu eta alkarrekin gelditu giñan Montresor'tarren eorztegiko lur eze gainean.

Ene adiskidea zibuka-zabuka zebillen, txapeleko girgillak dindatuz.

—Upela! —galdegin zuen.

—Urrunago da, bainan ikus itzazu sare zurioke leize-orma oietan dir-dir.

Eni buruz inguratu zan eta bere mozkor-begi lausoak landatu zizkidan.

—Gezala? —galdetu zuen azkenean.

—Gezala, bai! Noiztik duzu estulka ori?

—Ugh! ugh! ugh! — ugh! ugh! ugh! — Ugh! ugh! ugh! — ugh! ugh! ugh! — Ugh! ugh! ugh!

Ene lagun gaizoa luzaro egon zan iñardetsi âl izan gabe,

—Ezer ez da —esan zuen azkenekotz.

Nik erabakiro: "Zatoz, itzuliko gera; balios da zure osasuna, Aberats eta begiratua zera; miresten zaitutze, eta maite; zoriontsu zera, ni lenago nintzan bezala. Utsune andia utziko zenuke. Enetzako ez du garrantzirik. Itzuliko gera; eri zindezke bestela; ez naiz zeure osasunaren berme izaten âl. Gaiñera, ba da Luchresi..."

—Aski! Eztula ezdeuskeri bat da; ez nau ilko. Ez naiz estul batengatik ilko.

—Egia, egia, eta benetan, ez zindudan bearrik gabe asaldatu nai, bainan ardura oro eman bear dugu. Tanta batek Medoc ontatik zainduko gaitu ezetasunetik.

Bonbillak lerroka ba'zetzaten auts gainean, Bat atera nuen bere kideen artetik eta lepoa autsi nion.

—Edazu —esan nion Fortunato'ri, ardoa eskainiz.

Espainetara jaso zuen irripar zabal batekin. Geldi egon zan eta agur nabasi bat egin zidan, girgillek din-dan zegitelarik.

—Gure baranoan datzaten lurperatuai edaten dut —esan zuen.

—Eta nik zure bizi luzeari.

Besotik eldu zitzaitan ostera eta aitzinago joan giñan.

—Zabal da arpe au —esan zuen.

—Azkasi andi eta joria ziran Montresor'tarrak —erantzun nion.

—Zure ikurdia aztu dut.

—Giza-oin larri bat, zola urdin batean; oñak lertzen du urrezko suge narratzari bat; onen ortzek aztala ausikitzen diote.

—Eta ikur-itza?

—*Nemo me impune lacessit.* Iñork ez nau damurik gabe jotzen.
—Ederki!

Ardoak izarniatzen zizkion begiak eta girkillak dindatzen zuten. Ene gogoa ere berotu zan, Medok'aren eragitez. Ezurtza metatuzko orma luze, upa eta upelez aldizkatzuak, iragan genituen eta eorztegi ondora elduak giñan. Ekuratu giñan berriz eta aldi ontan ausartu nintzan Fortunato'ri besotik eltzera.

—Gezala! —esan nion—; ikusazu, gero ta geiagotzen... Goroldia-ren ariora, zibuka dago gainaldetik. Ibai-oearren azpian gaude, Iroitoiak darizkie ezurrei, Zatoz, itzuliko gera beranduegi izan gabe. Zure estula...

—Ezer ez da! Goazen aurrera. Bainan lenik, beste tanta bat Medoc ortatik.

De Grâve-bonbil bat autsi eta eskaini nion. Arnasa artu gabe ustuzuen. Begiak sutan zituen. Parrez asi zan eta bonbilla goiti aurdiki zuen ulertu ez nuen ayeru bat egiñaz.

Griñaturik begiratu nion. Berregin zuen ayeru oyez ura.

—Ez duzu ulertzen? —esan zidan.

—Nik, ez —iñardetsi nion.

—Beraz ez zera anaïdikoa.

—Nola?

—Ez zera arginetakoa.

—Baita —esan nuen—, baita.

—Zu? Ezin leike! Argina?

—Argina, bai!

—Ikur bat, ikur bat.

—Auxe —erantzun nuen, paleta bat Roquelaure-petik agertuz.

—Txantxetan ari zera! —egin zuen, urrats batzu atzeraka emanik—. Bainan goazen aurrera zure Amontillado'ra.

—Ala biz —esan nuen tresna soinekoaren pean atzera jarriz eta berriz ere besoa lagunari eskainiz. Aztunki eutsi zion, Bideari jarraitu genion Amontillado-zun. Arku-bide apal eta luze batetik igaro, jatsi, aurrerago joan eta artzara jatsi giñan, azkenean leize sakon batera eltzeko; an, aize ustela zala bide, gure zuziak illautzen ziran argi andirik eman gabe.

Leizearen ondo-ondoan, beste estuago bat ageri zan. Onen ormak giza-ondakin metatuz erpineraino tolestuak izan ziran Paris'ko kata-kumba andietan bezelaxe. Leize-barne onen iru alde oraindik apaindurik zeuden era ortan. Laugarrenean ezurrak lurreraturik izan ziran eta ortxe zetzaten nás-más multxo batean. Ezurren lekutzeak orrela biluzitako ormaren barruan, oraindik beste leze edo zulo barneago bat nabaritu genuen, metra bat et'erdi... edo sakon, metra bat zabal,

ia bi metra gora. Ba zirudin berezko jomugarik gabe egunik izan zala; eratzen zuen nola-ere-bait bi egazti-zurkaitz larriren bitarteak eta ingurutako orma gorretako batek egiten zion atzekaldea.

Alperrik zan Fortunato, zuzi argala jasoaz, zulo barnea aztertzen alegindu. Argi goibelak ez zigun âlmenik ematen ondoa ikusteko,

—Aurrera —esan nion—, ementxe da Amontilladoa, Luchresi, berriz...

—Ez-jakin bat da! —Ene adiskideak itza moztu zidan eta biz-pairu urrats eman zitun aitzina, okerkatuz, ni urran narraikiola. Be-reala ondoa iritxi zuen eta ikusiz arkaitzak aurreragotzea eragozten ziola, egon zan or, geldi eta zoro. Aurki arkaitzari esegi nuen. Arri-gainaldean ba ziran bi burni-mako, besoerdi bat-edo bien artean, zearka. Batetik kate labur bat zintzilik zegon, bestetik morroil bat. Aren gerri-inguruau katea jaurti eta estekatzea, berealako lana izan nuen. Arrituegi zan gogor egiteko. Giltza kendu ondoan zulotik kampo aldegin nuen,

—Eskua orma-gainean igaro zazu —esan nion—, ez esan ez du-zula gezala senditzen. Eze ezea da, benetan. Berriz ere otoitz egiten dizut itzul zaitean. Ez? Orduan utzi bear zaitut, utzi. Bainan lenik, ar-tatu bear zaitut âl bezeinbatean.

—Amontilladoa! —oiu egin zuen ene adiskideak arriduratik orain-dik ez bere-baitaratua.

—Egia —iñardetsi nuen—; Amontilladoa.

Itzok esan, eta ekin nion lengo aipatu dudan ezur-moltxoari. Ez-rrak barreiatutik, laster agertu nuen gisu eta arri-pilla bat. Ekai oiekin eta palotea lagun, azkar asi nintzan leize-sargua arresitzen.

Lenengo arri-lerroa doi-doi eraikirik nuen, idoro nuenean Fortunato'ren mozkorraldi andiena iraganik zala. Oien agergarri lena izan nuen leize barnetiko auen-oiu luto bat. Ez zan gizon mozkor baten oiusa. Gero ixilaldi luze eta sakon bat izan zan. Bigarren, eta irugaren, eta laugarren lerroak eraiki nituen; eta orduan entzun katea in-darka dardara. Otsak apur bat iraun zuen; bitartean, laketago izan zakidan entzutea, ene lanak utzi nituen eta ezurren gainean eseri nintzan. Kate-dardara azkenean ixildu zalarik, paloteari lotu nintzaion ostera eta etenik gabe bururatu nituen bostgarren, seigarren eta zaz-pigarren lerroak. Arresia ene bularra berdintsu gora zan orain, Eku-ratu nintzan artzara, eta zuzia argin-lanaren gainetik eutsiz, izpi iñul zenbait eman nituen barruan zegon itxurari buruz.

Bet-betan orru ozen eta urragarri batzuek, itxura kateztatuaren eztarritik jalkiak, indarrez bezala atzerakatu ninduten, Ergai labur bat zalantzau egon nintzan, ikara. Ezpata zorrotik atera-ta, asi nintzan arekin leize barruan azta-maztaka; lipar bateko gogoetatzreak,

ordea, lasaitu ninduen. Eskua ezarri nuen katakombetako orma gotorren gainean eta askitu zitzaidan. Arresiari urbildu nintzaion beriz; orruka zegonaren karraixai erantzun nien, Oyartzun eman eta lagundu nien, indarrez eta edapenez garaitu nituen. Ori egin nuen eta orru-egilea ixildu zan.

Gaberdi zan orain eta ene egitekoa amaitzera zoan, Zortzigarren, bederatzigarren eta amargarren arri-lerroak osotu nituen. Amaikagarrrena, ots, azkenaren zati bat bururatu ere; arri bakar bat baizik etzan egoten jarri ta gisuztatu bearra. Bortxaz jaso nuen. Zatika jarri nuen egon bear zan tokian. Bainan ona nun zan irri luto bat zulotik kampo etorri, ene buruan illeak laztu egin bai-zituen, Mintzo goibel batek jarraitu zion, eta nekez nuen artean ezagutu Fortunato guarenaren mintzoa. Zion:

—Ha! ha! ha! — hi! hi! — jostaketa ona, benetan — jostaketa ezin obea. Par ederrik egin eraziko digu jauregian — hi! hi! hi!
— gure ardoa edatez — hi! hi! hi!

—Amontilladoa! esan nuen,

—Hi, hi, hi! — hi, hi hi! bai, Amontilladoa, Bainan ez al da berandu? Ez al daude gure zai jauregian, Fortunato, Andrea eta gainerakoak? Goazen emendik.

—Bai —esan nuen— goazen emendik.

—Jainko maitez, Montresor!

—Bai —esan nuen—, Jainko maitez.

Bainan erantzunari alperrik behatu nintzaion aldi onetan. Ekuragaiztu nintzan. Oiu egin nun:

—Fortunato.

Iñardespenik ez. Berriz ere deitu nuen:

—Fortunato!

Oraindik ere iñardespenik ez, Zuzi bat egotzi nuen egoten zan utsunetik eta barruan erortzera utzi nuen. Soilki girgil-ots bat etorri zan erantzun antzean. Biotza nāsi zitzaitan; lurpeko ezetasunak zuen olakotzen. Laster egin nuen ene egitekoa urhentzeko. Azken arria bere gunean sar-erazi nuen, eta gisuztatu. Argin-lan berriaren aurka ezurrezko esi zārra berreraiki nuen, Menderdi ontan ilkor batxok ez ditu ikutu: In pace requiescat.

Paris, 23-VIII-52.